

# EUSKARA BIZIRIK

## “EUSKARARI HEGOAK JARRI NAHIAN LAUAIZETAKO IKASLEAK”

### JONE URIBARRI 1A

“Aste honetan oso ondo pasa dut jendeak zein hizkuntza erabiltzen duen aztertzen. Konturatu naiz normalean gaztelaniaz hitz egiten duen jende askok euskaraz badakiela.”

*Egian, 2016ko otsailaren 5ean*

Gaur lehenengo hiru orduak normalak izan dira gehientzat, baina niretzat ez. Hirugarren orduan Gurutzek ea bertso bat botatzera joan nahi genuen galdetu digu eta gutako batzuek baietz esan diogu. Bitartean guk Legook lehiaketan hartu dugu parte. Ondoren bertsoa abestera joan gara eta beste batzuek batukada egitera. Arratsalde horretan Egian Txerri deitzen diogun txutxe dendan bi olagarro eskatu dizkiot, baina ez dit ulertu eta gaztelaniaz esateko eskatu dit.

*Eibarren, 2016ko otsailaren 6an*

Gaur Eibarren bazkaria izan dugu. Oso bazkari ona izan da: pate desberdinak, ganbak, zainzuriak. Nire izebaren mutil lagun berria ezagutu dugu, baina hain gaizki zegoenez, ohean sartu da. Nik bitartean telebista pixka bat ikusi dut eta mobilean jolasean aritu naiz. Hori eta gero, txutxeak eroatera joan gara. Normalean dendariarekin gaztelaniaz hitz egiten dut, baina euskaraz esan diot eta orduan berak ere euskaraz dakiela konturatu naiz.

*Donostian, 2016ko otsailaren 7an*

Gaur esnatu naizenean, etxeko lanak egiten hasi naiz. Ez dut asko gosaldurik: bokata bat besterik ez. Hamaikak aldera Jumy etorri da eta paseo bat eman dugu. Ondoren etxera bueltatu gara bazkaltzera: makarroiak, gazta urtua eta besamelarekin. Arratsaldean lhauterietako konpartsak ikustera joan gara eta bide batez, beti bezala, txutxeak eroatera. Aitor Ikastolako konpartsa iristean beste aldera abiatu naiz. Bertan zegoen andre bati toki pixka bat uzteko eskatu diot euskaraz eta berak zakarki bultza egin nau eta gaztelaniaz “Vete de aquí, niña” erantzun dit.

*Donostian, 2016ko otsailaren 9an*

Gaur esnatu eta baso bat esne eta bizkotxo zati bat gosaldurik. Gizarte ikasi eta aita eta Haizearekin Tagliattela jatetxe italiarrera joan gara bazkaltzera. Bertan neska gazte batek jatorri zer nahi genuen galdetu digu euskaraz eta guk ere euskaraz erantzun dugu. Arratsaldean zoritxarrez Ingeles akademia eta balleta izan dut. Orduan etxera iritsi, materiala hartu eta autobusa hartu dut. Balleta bukatutakoan, etxera bueltatu naiz, afaldu eta ohera, pxka bat irakurri eta gero.

*Egian, 2016ko otsailaren 10ean*

Gaur goiz esnatu beharra izan dut, ikastolara joateko. Lagunekin elkartu naiz, goizero bezala eta haruntza abiatu gara. Klaseak bukatutakoan, etxera ailegatu eta aitak ogia eroatera joateko eskatu dit. Beheko okindegira jaitsi eta “egurrezko” ogi bat eskatu diot, baina ez dit ulertu eta gaztelaniaz hitz egiteko eskatu dit. Hala egin dut.

*Egian, 2016ko otsailaren 12an*

Gaur ikastolako patio garaian Euskara Bizirik aldeko kanpainaren txapak egiten ibili gara. Zoritxarrez materiala agortu zaigu eta ez da denontzat egon. Arratsaldean Euskara Bizirik kanpainaren lekuko aldaketara joan gara: guri tokatzen zitzaigun astea bukatu da eta. Musika eskolako ikasleek eta beste batzuek hartu dute parte lekuko aldaketa horretan. Biolin eta biolontxeloarekin kontzertu txiki bat jo dute. Ondoren Gaztelekura joan gara, baina lehenengo, ohi denez, txutxe dendatik pasa gara eta masusta bat pinportekin eskatu dizkiot. Ez dit ulertu eta gauza desberdin bat sartu dit poltsan. Hori ez zela esan diot, ondoan zegoena zela azaldu diot eta azkenean euskara erabilia ere, nik nahi nuena eskuratu dut. Gaztelekua itxi dutenean, etxera bueltan euri zaparradak harrapatu gaitu Malen, Ane eta biok eta abesten eta putzu guztietan sartzen bueltatu gara, baina aterki eta katiuskekin.

*Donostian, 2016ko otsailaren 11n*

Gaur esnatu naizenean, dutxatu egin naiz, jantzi eta gero garbitu eta orraztu. Ikastolan azterketa izan dugu eta, nire ustez, oso ondo atera zait. Arratsaldean katiuskak eroatera joan naiz. VASS dendan sartu naiz eta dendariari 38 neurriko katiuska gorriak eskatu dizkiot. Berak gaztelaniaz bere lankideari eskatzeko esan dit. Mutilari berriro ere euskaraz eskatu dizkiot, baina horrek ez dit ulertu eta jatorki gaztelaniaz esateko eskatu dit.

*Donostian, 2016ko otsailaren 12an*

Gaur berandu esnatu naiz, ez nuelako ikastolara joan beharrik. Gosaldu eta etxeko lanak egin ondoren, telebista apur bat ikusi dut. Bazkaldu eta gero, balletera joan eta litxarkeria dendan sartu naiz. Nik euskaraz eskatu diot, baina berak gaztelaniaz eskatzeko edo dendatik alde egiteko eskatu dit.

## **MALEN LETAMENDIA 1A**

*Donostian, 2016ko otsailaren 8an*

Gaur arropa denda batean sartu naiz eta dendaria euskaraz hitz egiten aditu dut; beraz, euskaraz zuzendu naiz berarengana, eta berak ezustean harrapatu du, nik euskaraz hitz egiten entzutean. Hori ikusita, hemendik aurrera beti hitz egingo dut euskaraz, denda horretan sartzen naizenean.

*Donostian, 2016ko otsailaren 9an*

Gaur etxerako bidean gizon bati aterkia erori zaio. Nik jaso dut eta euskaraz esan diot erori zaiola. Ez dit erantzun eta erdaraz esan diot. Orduan bai erantzun didala. Badirudi ez zekiela euskaraz edo ez du ondo entzun. Aterkia hartu duenean, "Eskerrik asko" esan dit. Agurra gutxienez euskaraz aditzeak poztu nau.

*Donostian, 2016ko otsailaren 10ean*

Gaur zapata dendara joan naiz. Bota batzuk konpondu nahi nituela esan diot zapatariari eta berak erdaraz erantzun dit. Banekien ez zekiela euskaraz elkarrizketa bat osatzen, baina hitz batzuk bai eta horregatik egin dut. Hala ere, ez du ezertarako euskara erabili gaur.

*Donostian, 2016ko otsailaren 11n*

Gaur arraindegira joan naiz gurasoekin. Arrainsaltzaileak ez daki euskaraz, baina ikasi nahi du. Euskara dakitenei esaten die berarekin euskaraz hitz egiteko, hiztegia aberasteko. Geroz eta gehiago daki, euskaltegia joan gabe.

*Donostian, 2016ko otsailaren 12an*

Atzo atariko txirrina jo zuten, etxean nengoela, eta ni euskaraz hitz egiten hasi nintzen. Berak esan zidan ez zekiela euskaraz eta mesedez erdaraz egiteko. Nik erdaraz egin nion, baina tarteka euskaraz ere bai.

## **ELENE JUANIKORENA 1A**

*Donostian, 2016ko otsailaren 5ean*

Lagunekin litxarkeria dendara joan naiz. Normalean gaztelania erabiltzen dugu, baina gaur euskara erabili dugu. Gauza batzuk ulertu ditu, baina beste batzuk ez. Zenbakiak euskaraz erantzun dizkigu, baina beste gauza batzuk ez. Nahiko harrিতa gelditu gara eta hemendik aurrera euskaraz hitz egingo diogula erabaki dugu.

*Donostian, 2016ko otsailaren 6an*

Familiarekin taberna batera joan naiz, eta behar genuena euskaraz eskatu dugu. Ondoren berak ere euskaraz erantzun digu. Eskerrak euskaraz hasi garen hitz egiten; bestela euskaraz dakigunon artean elkarrizketa gaztelaniaz burutuko genuen eta hori ez da horrela izan behar.

*Donostian, 2016ko otsailaren 8an*

Gaur lagunekin eta familiarekin "Paparazzi" pizza dendara joan naiz eta euskaraz hitz egin dugu. Nola-hala elkar ulertu dugu. Berak hitz batzuk: "Kaixo, Agur, eskerrik asko,..." esaten zituen, baina gehiago ez. Hurrengoan ere berdin egingo dugu.

*Donostian, 2016ko otsailaren 11n*

Gaur Ilargi tabernan sartu gara ama eta Anarekin. Nahi genuena : "baso bat ur eta bi ebaki" eskatu dizkiogu eta euskaraz erantzun digu. Hortik ateratzerakoan andra batek anbulategia non zegoen galdetu digu gaztelaniaz. Guk euskaraz azalpen guztiak eman dizkiogu. Beste galdera pare bat egin dizkigu gaztelaniaz berriro eta guk berriro euskaraz erantzun. Joan denean, ea zerbait ulertu duen pentsatzen gelditu gara.

## **IRATI BLANCO 1A**

*Donostian, 2016ko otsailaren 11n*

Gaur orfeoia nuen eta autobusa hartu behar genuenean, neska gazte batek, 23 edo 25 urtekoak, autobusa nondik eta noiz pasatzen galdetu digu gaztelaniaz. Guk euskaraz erantzun diogu eta berak "Eskerrik asko" eta geltokiaren alde batean geratu da. Bere autobusa lehenago ailegatu da eta igotzean agur egin digu eskuarekin. Ondo sentitu gara , guk euskaraz eginda, berak gaztelaniatik eukarara pasa dela ikustean.